



ETXARRI ARANAZKO UDALA

Kale Nagusia 10 (KP 31820)

Tef. 948460004

udala@etxarriaranatz.eus

www.etxarriaranatz.eus

EDIKTUA

MENDIKO PISTEN ETA BIDEEN ERABILERA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETA. BEHIN BETINO ONESPENA

Udalak, 2018ko apirilaren 11an, osoko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen “ Mendiko pisten eta bideen erabilera arautzen duen udal ordenantzaren aldaketa”.

Erabaki hori 2018ko 51. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, apirilaren 13an, eta handik aurrera jendaurrean egoteko hogeita hamar egun balioduneko epea iragan da inork aurkeztu gabe erreklamazio, kexa edo oharrik haren kontra. Beraz, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. eta 326. artikuluekin bat, hasierako onespena behin betikoa bilakatu da, eta hortaz Nafarroako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzen da “ Mendiko pisten eta bideen erabilera arautzen duen udal ordenantzaren aldaketa”.

Etxarri Aranatz 2018ko maiatzaren 29an
Alkatea: Eneka Maiz Ulaiar

